

## ARABAKO DIPUTATU NAGUSIAK ETA GASTEIZKO ALKATEAK EGEAF-EN III. BILTZARRA INAUGURATU DUTE. BILTZAR HORRETAN KRISIALDIARI AURRE EGITEKO TRESNA GISA EGE-AK DUEN ZEREGINA LANDUKO DA

**Biltzarrean parte hartuko duten ehun lagunek baino gehiagok eztabaidan  
jardungo dute, parte hartzeko dinamika erabiliz, EGEak Arabako enpresetan duen  
zereginari buruz**

Román Knörr EGEAFen presidentea, Xabier Agirre Arabako diputatu nagusia eta Patxi Lazcoz Gasteizko alkatea Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Arabako Foroaren (EGEAF) III. Biltzarraren inaugurazio-ekitaldiaren buru izan dira; ekitaldi hori gaur goizean izan da Europako Kongresu Jauregian. Aurtengo edizioaren izenburua "Hitzetatik ekintzetara" da, eta garai zail hauetan edozein enpresarentzat funtsezkoa den gai bat landuko du: EGEa errealitate bihurtzeko modua eta krisialdi ekonomikoa gainditzeko EGEak duen funtsezko zeregina.

*"Inork ez dauka krisialdi ekonomiko hau gainditzeko behin betiko errezeta, baina ziur nago EGEaren politikak aplikatzea funtsezko tresna dela helburu hori lortzeko, taldeen kohesioan egiten duen lanagatik edo enpresetako bezeroengan pizten duen konfiantzagatik, beste balio batzuen artean", adierazi du Agirrek.*

Román Knörr jaunak, bestalde, esan du pozik dagoela EGEAFa Arabako enpresa-sarean gauzatzen ari den EGEaren aurrediagnostikoez izan duten onarpenarekin; horrek esan nahi baitu *"EGEa fenomeno geldiezina eta bilakaera sozialaren ondorio logikoa dela"*.

Gasteizko alkateak, halaber, *"gure enpresak Erantzukizunaren eremuan egiten ari diren ahalegina balioetsi" nahi izan du; izan ere, alkate jaunak adierazi denaren arabera, "horrek erakusten du EGEa ez dela moda bat, ezta marketing-estrategia bat ere, entitate publiko eta pribatuok gizartearekiko dugun konpromisoa indartzeko neurri bat baizik"*.

150 bat lagunek hartuko dute parte jardunaldiko jardueretan; kopuru horrek erakusten du, gaur egungo egoera ekonomikoa gorabehera, Enpresen Gizarte Erantzukizuna gure lurraldeko enpresetan gero eta garrantzi handiagoa duen apustua dela.

Biltzar hau (aurtengoa hirugarren urtea da) erreferente autonomiko bihurtu da EGEaren alorrean; izan ere, edizioz edizio Enpresen Gizarte Erantzukizunaren arloko Estatuko aditu nagusietako batzuk biltzen ditu. Edizio honetan, Europako Biltzar Jauregian Enpresa Institutuaren presidenteorde **Joaquín Garralda jaunaren** ponentziak emango dira. Garralda jaunak Hitzaldi Magistrala emango du, izenburu honekin: “¿Estamos entrando en una nueva era de la Responsabilidad?”. Garralda, halaber, ASEPAM Munduko Itunaren Espainiar Elkartearen idazkaria da, eta “Hacia la Empresa Responsable” deituriko liburuaren egilea. Liburu horretan enpresa-portaera iraunkorraren eta arduratsuaren eredua osatzen duten oinarritzko parametroak ezartzen ditu EGEaren ikuspegitik. Gaur egun, Fundación Lealtad erakundearen buru da; erakunde horretan gardentasun-irizpideak aztertzen ditu irabazi-asmorik ez duten erakundeen kudeaketari dagokionez.

**Luis Huete jauna** izango da biltzarrera bertaratu direnei bere esperientzia azalduko dien beste aditu bat; horretarako, honako ponentzia hau emango du: “Cómo convertir la crisis en una oportunidad”. Huete IESE Business School-eko irakaslea da eta goi-mailako zuzendaritzaren aholkularia. 25 urtean 400 enpresari baino gehiagori eman die aholkua, eta haren lan-arloen artean honako hau nabarmentzen da: gako jakin batzuk sakonetik aztertu eta enpresen eskura jartzea, merkatuaren aldaketetatik etekinik ateratzeko aukera izan dezaten.

Aurreko bi edizioetan bezala, Biltzarrean gune bat dago Enpresen Gizarte Erantzukizunean urrats bat gehiago egin duten enpresek erabilitako jardunbide egokiak erakusteko. Kasu honetan, JAVIERRE eraikuntza-enpresak eta DECEPAL zerbitzuetarako eta produktuak hornitzeko enpresak partekatuko dituzte beren esperientziak Biltzarrera bertaratu direnekin.

## ARRATSALDEKO JARDUNALDIA

Aurtengo edizioak badu berritasunik; izan ere, EDEAFen Biltzarrak arratsaldeko jardunaldian **World Café** parte hartzeko dinamika egingo du bertaratu guztien partaidetza eta elkarrekintza sustatzeko EGEarekin lotutako galdera jakin batzuei erantzuna ematearren.

Zeintzuk dira EGEaren alderdirik errentagarrienak enpresarentzat?

Zeintzuk dira enpresan EGEa oztopatzen eta bultzatzen duten alderdiak?

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 12a